

<b>AHOLKULARI JURIDIKO LANPOSTU BATEN LAN-KONTRATURAKO DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRIAK</b>
------------------------------------------------------------------------------------------

## **1.- DEIALDI PUBLIKOA**

Surbisaren zuzendaritzak, 2023ko martxoaren 28an Administrazio Kontseiluak eginiko saioan adostasuna emanda, lan-taldean honako lanpostu hau betetzeko herritar guztientzat zabaldutako deialdi prozesuari hasiera ematea erabaki du:

- **Aholkulari juridiko bat (1).**

Kontratua mugagabea izango da eta erabateko arduraldikoa, 6 hilabeteko probaldiaren ostean. Deialdi honetako proba guztiak, amaierako elkarrizketa barnean hartuta, gainditzen duten pertsona guztiak, nahiz eta lanpostuaren esleipendunak izan ez, Surbisaren lan-poltsa osatuko dute bi urtez.

Lan-baldintzak enpresaren lan-hitzarmenean ezarritakoak izango dira, eta lan-jardunaldia zatitua izango da neguan eta jarraitua udan.

## **2.- LANPOSTUAREN ARDURAK ETA ZEREGIN NAGUSIAK**

Aholkulari juridiko lanpostuak honako ezaugarri eta zeregin hauek izango ditu:

- **Soldata maila**

Goi mailako tituludunarena, Lan Hitzarmenaren arabera (Bilboko Udaleko 26 mailaren parekoa)

- **Lanpostuaren ardurak**

Surbisari eta honen eskumenei dagokienez, deitutako lanbide kategoriakoak direnak.

- **Zeregin nagusiak**

A) Elkarteari, eta bertako kide eta langileei, aholkularitza juridikoa ematea.

B) Txostenak, administrazio pleguak, kontratuak eta era guztietako dokumentu juridikoak idaztea.

- C) Surbisak eskuordetuta dituen eskumenen administrazio-espeditentzarako izapidetzea, batez ere hiri antolamendu, kudeaketa eta diziplinakoak, bai eta horiei lotutako prozedura guztiak ere.
  
- D) Diru-laguntzen oinarri arautzaileak idaztea, izapidetzea eta prozesu osoan aholkularitza juridikoa ematea.
  
- E) Surbisaren lanaren xede diren pertsonen Hiri Birgaikuntzaren kudeaketa prozesuan zentzu zabalenean laguntza, informazioa eta aholkularitza eskaintzea; hau da, lokal eta etxebizitzaren Jabekideen Elkarteei, jabeen, egoiliarrei, errentariei, e.a., bai eta prozesuarekin lotutako profesionalen ere. Horretaz gain, Elkargo Profesionalekiko harremana ere izango du.
  
- F) Epaitegi, notariotza, erregistro, auzo-elkarte eta bestelakoekiko lan formalen kudeaketa.
  
- G) Elkarteari arlo juridikoko laguntza funtzional eta tekniko eskaintzea.

### **3.- LANPOSTURAKO HAUTAGAIEN BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK**

Oro har, hautagaitzat hartuko dira ondoren jasotako betekizunak beteta, honen iragarkian ezarritako epean deialdi honetan parte hartzea eskatu eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dutenak:

- Unibertsitate titulazio ofiziala, Zuzenbidean gradua edo baliokidea.
  
- Espainiar nazionalitatea, edo Europar Batasunaren kide diren Estatu baten batekoa, izatea. Europarrak ez diren atzerritarren kasuan, Espainian egoitza baimena egiaztatu beharko dute eta kontratazio honetarako administrazio-baimena eduki beharko dute.
  
- Adinez nagusia izatea eta lanpostuko zereginak betetzeko oztopo izan daitezkeen gaixotasun edo akats fisiko edo psikorik ez izatea, minusbaliatuen gizarte integrazioari buruzko 13/1982 Legean xedatutakoaren kaltetan izan gabe.
  
- Herri Administrazioekin kontratazioa egiteko aurreikusitako bateraezintasun edota ezgaitasun balizko batean ere erorita ez egotea eta diziplina espeditente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzuetatik berezita ez egotea, ez eta funtzio publikoak egikaritzeko ezgaitua egotea ere.

- Berehala hasiko da lanean, gehienez 15 egun natural igarota hautapenaren idatzizko jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita (2023ko abenduaren 18rako aurreikusten da lanean hastea).

#### **4.- AUKERAKETA PROZESUA**

Lanpostuaren deialdi publikoak hautagaien gaitasuna egiaztatzea eskatuko du; beraz, hautapen sistema Lehiaketa-oposiziokoa izango da.

Prozesuaren gehieneko puntuazioa 35 puntukoa izango da: hautagaiak proba bakoitzean lortutako puntuen batuketa. Hautagaiak proba guztiak gainditzen joan beharko du eta horietako batzuk baztertzailak izango dira, baldin eta Oinarri hauetan dagokion atalean ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen ez bada.

Deialdiak honako fase hauek izango ditu:

- ✓ **1.go fasea: Eskariak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztea, eta aurkeztutako pertsonen zerrenda argitaratzea.**  
Eskakerak [seleccion@surb.bilbao.eus](mailto:seleccion@surb.bilbao.eus) posta elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira, iragarkia El Correo eta Deia egunkarietan argitaratzen den egunetik hasi eta 2023ko azaroaren 17ko, ostirala, 24:00etara arte.  
Eskatera inprimakia Oinarri hauen eranskinakoa izango da eta dokumentazioa Oinarri hauen 7. puntuan zerrendatzen dena.  
Hautagaien zerrenda Surbisaren web orrian argitaratuko da.
- ✓ **2. fasea: Eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu eta onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratzea.**  
Onartutako hautagaien eta baztertuen zerrenda Surbisaren web gunean argitaratuko da.  
Baztertuak izan direnek alegazioak aurkeztu ahalko dituzte idatziz [seleccion@surb.bilbao.eus](mailto:seleccion@surb.bilbao.eus) postan, zerrenda Surbisaren web gunean argitaratu eta biharamunetik hasi eta 2 egun naturaleko epean.  
Epea amaituta eta alegazioen gaineko erabakiak hartuta, hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da, bai eta hurrengo probaren eguna eta lekua ere.
- ✓ **3. fasea: Probak egin, meritua ebaluatu eta argitaratzea.**  
Ezagupenak eta gaitasuna egiaztatzeko fase honetan, idatzizko proba bat edo batzuk egingo dira, meritua balioetsiko dira eta elkarrizketa bat egingo da.  
Prozesu honetan erabiliko den hizkuntza gaztelera izango da; hala ere, eskaera egiteko unean, idatzizko probak euskaraz izan daitezken eskatu ahalko da.  
Idatzizko probak gainditu dituztenei baino ez zaizkie meritua ebaluatuko eta elkarrizketa egingo; horietako bakoitza Surbisaren web orrian argitaratuko du deialdi honen Aukeraketa Epaimahaiak, eta ariketa bakoitzari alegazioak aurkeztu ahalko zaizkie 2 egun naturaleko epean [seleccion@surb.bilbao.eus](mailto:seleccion@surb.bilbao.eus) postan.

Epaimahai Kalifikatzaileak ariketak burutzeko deialdira, adierazitako leku, egun eta orduan, agertzen ez diren hautagaiak, nahiz eta ezinbesteko kausaz izan, hautatze prozesutik kanpo geratuko dira behin betiko.

- Idatzizko ariketak (nahitaezkoa eta baztertzailerak): gehieneko puntuazioa 20 puntu, eta gutxienez 10 puntu

Galdetegi bat, erantzun laburreko edo hautatzeko galderak, test modukoak, dituena erantzun beharko da idatziz, eta lanpostua betetzeko funtzioei buruz hautagaiak dituzten ezagupen teoriko-praktikoak egiaztatzeko xedea duen/duten balizko praktiko bat edo batzuk ere egongo dira. Ariketa hori Aukeraketa Epaimahaiak ezarritako gehieneko epean burutu beharko da, gehienez ere hiru ordu eta erdian.

Proban sartuko diren gaiak II. eranskinean adierazitako gaiterakoak izango dira. Kasu praktikoak ebazteko, hautagaiak egoki irizten dituzten eta aldean ekarri dituzten legezko testuak erabili ahalko dituzte.

Balioetsiko direnak: hautagaiak erakutsitako ezagupen espezifikokoak, araudia egoki aplikatzea, sistematika, adierazpenaren argitasuna eta gaitasuna, gaitasun kritikoa eta heldutasuna.

Baldin eta hautagaiak 10 baino gutxiago balira, Aukeraketa Epaimahaiaren aurrean ahozko irakurketa eginda zuzendu ahalko da proba.

- Merituen balioespenerako proba: gehienez 10 puntu

Proba hau ez da baztertzailerak izango eta aipatu gabeko merituak ezingo dira balioetsi, ez eta, aipatuak izanda ere, behar bezala eta Oinarri hauetan ezarritakoarekin bat eginda egiaztatu gabekoak ere.

Merituen baremazioa honela egingo da:

- A) Egindako lana / Lan eskarmentua (gehienez, 7.5 puntu)

Antzeko lanpostuetan burututako lana balioetsiko da:

- Administrazio Publikoan edo udal enpresetan burututakoa, gehienez 5 puntura arte: 0,1 puntu, lan egindako hilabete (oso) bakoitzeko.

-Enpresa pribatuetan burututako antzeko lana, gehienez 2,5 puntura arte: 0,05 puntu, lan egindako hilabete (oso) bakoitzeko.

Azpiatal bakoitzeko egunen batuketa hilabete moduan konputatuko da 30era iristen denean.

Denbora tarteak, hala badagokio, eskaerak aurkezteko azken egun moduan adierazitakora arte kontatuko dira.

Azpiatal bakoitzean burututako lana justifikatzeko, hautagaiek Zerbitzuen Ziurtagiria edota enpresa bakoitzaren Ziurtagiria edo lan kontratuaren kopia edo burututako lanaren nolakotasuna argi zehaztu ahal izateko dokumentua aurkeztu beharko dute.

Era berean, Gizarte Segurantzak igorritako lan-ibilbidearen Ziurtagiria/Txostena aurkeztu beharko da.

B) Ikasketa osagarriak (gehienez, 1.5 puntu)

-Deitutako lanpostuaren jarduerarekin (hirigintza, ibilgetua edota gatatzak modu baketsuan konpontzeko bitartekotza) zuzenean lotutako prestakuntza ikastaroak:

\* 30 eta 100 ordu bitarteko iraupeneko ikastaroak; bakoitzak 0,05 puntu; gehienez, puntu 0,5.

\* 100 orduetik gorako iraupeneko ikastaroak: Ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu; gehienez, 1 puntu.

Unibertsitateak edo Ikastetxe Ofizial batek egiaztatutako titulazio ofizialak eta eskariak aurkezteko mugaeguna baino lehen lortutakoak baino ez dira ebaluatuko.

C) Hizkuntzak (gehienez 1 puntu)

-Euskara:

C1: 0,5 puntu

B2: 0,25 puntu

-Ingelesa edo EBko beste hizkuntza batzuk:

C1: 0,25 puntu

Erakunde ofizialek egiaztatutako eta eskaria aurkezteko mugaegunaren aurretik lortutako hizkuntza egiaztagiria baino ez dira balioetsiko.

- Elkarrizketa pertsonala (nahitaezkoa). Gehienez 5 puntu eta gutxienez 3. Aurreko probetan lortutako puntuaren aldearen arabera bete gabe dagoen lanpostuaren estaldura lortzeko aukera duten hautagaien artean egingo da proba hau.

Elkarrizketa pertsonala izango da, lanbideari lotutakoa, eta ez da baloratuko pertsonaren baztertze alderdirik. Honen bitartez, hautagaia lanposturako egokia den balioetsiko da, eta hainbat gairi buruz arituko dira: lanbidearekin lotutako informazioa zabaltzea, beste lanpostuei buruzko ezagupenekin lotutakoak, bai eta lanpostuaren eta bertako erantzunak beregan hartzeko antolakuntza gaitasuna eta estrategiekin loturikoak ere.

Ondorengo irizpide hauek jarraituko dira, besteak beste (altua, normala, baxua):

- \* Lan egokitze erraztasuna
- \* Berrikuntzarako gaitasuna
- \* Lanbide gaitasunak
- \* Antolamendu, plangintza, erantzukizun eta halako ezaugarriak.
- \* Adiskidetze jarrera

Aukeraketa Epaimahaiak elkarrizketatuen hasierako gutxienekoa zabaldu ahal izango du.

✓ 4. fasea: Amaierako emaitza, hautatutako pertsonaren izena argitaratzea

Behin proba guztiak burututakoan, Aukeraketa Epaimahaiak Amaierako kalifikazioa emango du eta kontratazio organoari puntuazio onena lortu duen pertsona hautatuaren izendapen proposamena igorriko dio.

Berdinketa egonez gero, idatzizko probetan lortutako puntuazio onenei begiratuta ezarriko da ordena. Berdinketak jarraituz gero, merituen ebaluazioko puntuazioari begiratuko zaio.

Kontratazio organoak Aukeraketa Epaimahaiaren proposamena bere egingo du, justifikatutako kausa dagoenean izan ezik, bat-batekoa edo aukerako beste zio batzuegatik delarik; dena dela, deialdi hau hutsik gera daiteke zergatik-eta Elkarteko edo udal langile batek, egoera honetan edo antzekoan egonda, lanpostua bete eta hutsik egoteari uzten diolako.

Erabakitzen den izendapen erabakia, Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio.

## 5.- AUKERAKETA EPAIMAHAI

Deialdi publiko honetako prozesuaren Aukeraketa Epaimahaia Elkarteko honako pertsona hauek edo beroriek eskuordetutako pertsonak osatuko dute:

- Presidentetza: Zuzendari Nagusia
- Mahaikideak:
  - Administrazio Arduraduna
  - Langileen ordezkaria
  - Prozesuko idazkaritza lanak egingo dituen aholkulari juridikoa
- Idazkaria: Zehaztutako aholkulari juridikoa

Aukeraketa Epaimahaia eratzeko, gutxienez Presidentetza eta Idazkaritza beharko ditu, edo horien ordezkari moduan jardungo dutenak.

Horien deliberamenduak ez dira publikoak izango eta isilpekoak izango dira; kide guztiak boto eskubidea izango dute eta sortzen diren interpretazio zalantza guztiak konponduko dituzte. Berdinketa egonez gero, presidentearen botoak apurtuko du berdinketa.

## **6.- KONTRATATZEKO DEN PERTSONAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Deialdi honetako lanpostua betetzeko aukeratua izateko proposatutako hautagaiak amaierako sailkapen zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik 10 egun naturaleko epean aurkeztu beharko du lan kontratua sinatzeko beharrezko dokumentazioa, bai eta hautatze prozesuan parte hartzeko baldintzazko dokumentu jatorrizkoak ere, konpultsatuak izan daitezten.

Baldin eta epe horretan arestian esana betetzen ez bada edo betekizunak bete ezean, pertsona hori ezingo da kontratatua izan eta jarduketa guztiak eraginik gabe geratuko dira; gainera, kontratazio honetan sortu ahal izan diren eskubide guztiak galduko dira. Balizko horretan, amaierako puntuazioak kontuan hartuta hurrengo lekuan dagoen pertsonaren alde formalizatuko da kontratazio proposamena. Era berean jokatu da baldin-eta kontratatutako pertsona hautagaiak frogaldia gainditzen ez badu.

## **7. PARTE HARTZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Eskaerak ezarritako inprimakia(1. Eranskina) beteta aurkeztu beharko dira eta ondoren zehazten den nahitaezko dokumentazioa (oinarri hauen 4. puntuan adierazitakoari jarraituz) ere erantsita:

- NAN fotokopia.
- Titulazioaren eta ezagupenen/Ikastaroen ziurtagirien fotokopia.
- Zerbitzu Ziurtagiria edo burututako jarduerena.
- Gizarte Segurantzak igorritako lan-ibilbide Ziurtagiria edo Txostena.
- Curriculum Vitae

## **8.- DATUEN BABESA**

Emandako informazioaren tratamendua, azterketa eta artxibatzea datuen babesari buruzko legedia beteta egingo da, eta horren helburu bakarra hautatze prozesu honen burutzapena izango da, interesatuak eskaera-inprimakia sinatzean eman duen adostasunarekin.

Ez da inolako datu-emakidarik egingo, legez ezarritako epean gordeko dira eta legeak ezarri bezala suntsituko dira, hori guztia “langileen aukeraketa” izeneko fitxategian.

**I. ERANSKINA. AHOLKULARI JURIDIKO LANPOSTUAREHN AUKERAKETA PROZESUAN**  
**PARTE HARTZEKO ESKAERA ORRIA****HAUTAGAIAREN DATU PERTSONALAK**

NAN	Izen-abizenak:		
Telefono mugikorra	Emaila		
Probak egiteko hizkuntza	Euskara <input type="checkbox"/> Gaztelera <input type="checkbox"/>		

**HAUTAGAIAREN LANBIDE DATUAK**

Ikasketak eta titulazioak			
Ikastaroak eta ezagupenak	Izenburua		Ordu kopurua
Lanpostuarekin zerikusia duen lan eskarmentu aipagarria	Erakundea	Jarduera	Denbora

**AITORPENAK ETA BAIMENAK**

EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Aurkeztutako dokumentuak eta datuak egiazkoak direla aitortzen du
EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Parte hartzeko betekizunak betetzen dituela aitortzen du
EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Bere datu pertsonalak Oinarrietan jasotako moduan tratatuak izan daitezen onartzen du
EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Beste batzuk

□

**Aholkulari Juridiko Lanpostuaren Aukeraketa Prozesuan parte hartzeko onartua izatea eskatzen dut eta Deialdiaren Oinarrietako baldintza arautzaileak onartzen ditut****Sinadura / Firma**



## **II. ERANSKINA: HAUTATZE PROBETAKO GAITEGIA**

### **ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEKO GAI OROKORRAK**

- ◆ 1978ko Espainiar Konstituzioa. Printzipio orokorrak.
- ◆ Toki Administrazioa: osatzen duten erakundeak. Toki Erakundeen eskumen markoa. 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
- ◆ Administrazio Prozedura, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa, Kontratazio Publikoa, Nahitaezko Desjabetzea.

### **HIRIGINTZA ZUZENBIDEKO GAIK**

- ◆ Lurzoruari buruzko Estatu Zuzenbidea. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena. Egitura eta edukia.
- ◆ Kontserbazioa, birgaitzea eta eraikuntza berria sustatzeko tresnak. Eraikuntzen azterketa teknikoa. Nahitaezko salmenta eta ordezkatzekak. Aurri adierazpena eta egikaritze agindua.
- ◆ Hirigintza zuzenbidea, EAEn. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea eta horren garapenerako araudia. Indarrean dauden araudiak.
- ◆ Hirigintza eta Kultur Ondarea. 6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena.
- ◆ Hirigintza eta Ingurumena. Ingurumenaren babesa, abenduaren 9ko 10/2021 Legean, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenean.
- ◆ Birgaitze Integratuko Areen eta Area Degradatuen Araubide Juridikoa. Birgaitzeko Egitasmo Bereziak. 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- ◆ 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa.
- ◆ 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Euskadiko etxebizitzari buruzkoa. Birgaitzeko beharraren aitortpenak. Birgaitzeko hirigintza elkarteak. Etxebizitza hutsa, infraetxea. Bizigarritasun ezaren aitortpena.
- ◆ Legegintza sektoriala: Itsasertzekoak.

### **HIGIEZIN ZUZENBIDEKO GAIK**

- ◆ Jabetza Erregistroa eta hirigintza egintzak. Araubide Juridikoa. Egintza, idazkun eta titulu inskribagarriak.
- ◆ Jabego horizontalari buruzko Araubide Juridikoa. Jabego horizontalaren legea.
- ◆ Kode Zibila, eraikuntzari lotutakoa.